



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

Etxebizitza komunitarioetarako jarduera memoriaren eredua

Gizarte Zerbitzuen Saila
Departamento de Servicios Sociales

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
Dirección de Servicios Sociales

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuaren 8.2. artikulua ezartzen du zerbitzuek eta zentroek garatu beharreko jardueraren azalpen memoria bat aurkeztu behar dutela; memoria horrek honako hauek zehaztuko ditu beren-beregi:

1. Helburu orokorrak:

Etxebizitza komunitarioak elkarbizitza zentroak dira, etxebizitza iraunkor eta erkide gisara erabiliko direnak; bertan adineko pertsonen artapen oso eta etengabekoa eskainiko zaie. Horretarako, bada, arautegi aplikagarriak exijitzen dituen eta erabiltzaileen ezaugarriak egoitzen zaizkien behar adina baliabide material eta funtzional izan beharko dituzte.

Zehatz-mehatz jaso behar da zeintzuk diren zentroak lortu nahi dituen helburuak eta zeintzuk horien bitartez estali nahi dituen premiak, betiere hirugarren adinarentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako gizarte zerbitzuen jarduketara eraentzen duten printzipio orokorre dagokienez.

2. Helburu zehatzak:

Atal honetan helburu orokorrak lortzeko garatuko diren jarduketan zerrenda bat jasoko da, bai eta marko kontzeptuala, lorpenari begira jarraituko den metodologia eta lorpenarako, kontrolerako eta betetze mailaren jarraipenerako jarraituko den metodologia ere. Talde bakoitzaren helburu zehatzak finkatu behar dira: etxebizitza komunitarioko egoiliarrenak, familienak eta pertsonalarenak. Helburuak honela ezartzen dira: hirugarren adinarentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren I. eta III. eranskinetan ezarritako jarraibideen bitartez. Gutxien-gutxien honako puntu hauek garatu behar izango dira:

2.1. Egoiliarren artatzeko helburuak:

- Erabiltzaileei banakako artapen osoa eskaintzea.
- Erabiltzaileen gizarte integrazioa sendotzea, ahal denik eta gehien, zentroaren bizitzan, familiaren ingurunean eta komunitatearenean.
- Erabiltzaileen autonomia maila hobetzea edo hari eustea.

- Aurreikusitako hiru eremuetan atzerakada saihestea, hau da, eremu fisiko, psikiko eta sozialean.
- Berreskura daitezkeen trebetasunak bultzatzea.
- Hondamen fisiko eta psikikoko egoerak prebenitzea.
- Egoiliarren arteko taldekako hartu-emanak bultzatzea eta senitartekoekin nahiz etxebizitza komunitarioko langileekin.
- Taldearen benetako integrazioa erraztea zentroan.
- Okupazioa eta aisialdiaren gozamina hobetzea.
- Atzemandako gaixotasun eta desorekak terapeutikoki kontrolatzea eta jarraitzea sendagilearen zuzendaritza eta ikuskapenaren arabera, baita ere agindutako medikamentuak behar bezala hartuko direla.
- Elikatzeko erregimen osasuntsu, orekatu eta askotarikoa eskaintzea eta beharrezkoak diren dietak prestatzea.

2.2. Egoiliarren familiekiko helburuak:

- Haien senideekin jorrazteko moduko estrategiarik egokienei buruz eta zirkunstantzia berezietan buruz argibideak eta aholkuak ematea.
- Senitartekoei eta ohiko zaintzaileei menpeko pertsonaren zainketa eta artapena erraztea.
- Artapenerako Banakako Planaren garapenaren inguruan informatzea eta senitartekoen partaidetza lortzea.

2.3. Langileekin lortu beharreko helburuak:

- Motibazio pertsonalari eustea etengabeko estimuluen bitartez, betiere adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko eta handitzeko jardun profesional egokia baliatuz.
- Pertsonalaren etengabeko prestakuntzari bultzada ematea.
- Esperientzien trukea eta langileen ezagutza sustatzea.
- Etxebizitza komunitarioan proiektatutako programen aplikazioa erraztea, bideratzea, sustatzea eta bultzatzea.
- Pertsonalarengan kideztaren, erantzukizunaren eta jardun profesional egokiaren zentzua garatzea. talde lanaren bitartez.

3. Esku hartzeko programak:

Erabiltzaileei emango zaien artapena haien premien arabera izango da. Gauzak horrela, pertsona horiek izan lezaketen narriadura fisiko edota kognitiboa minimizatzeko ahaleginak egingo dira; horretarako, bada, esku hartzeko beharrezko programak ezarriko dira.

Memoria honetan zehaztuko da zeintzuk diren esku hartzeko proposatzen diren programak. Etxebizitza komunitarioaren memorian sartutako programek haren benetako egoera islatu behar dute oso-osorik.

Komeni da esku hartzeko programak multzokatzea arloen arabera; hona hemen horren adibide bat: osasun programa, programa psikologikoa, gizarte eta kultur artapenerako programa, artapen estimulagarriko programa, gizarte laneko programa eta langileen etengabeko prestakuntzako programa.

Programa guztiek gutxien-gutxienik honako hau jaso behar izango dute: helburuak, lan egiteko planaren egutegia, metodologia eta esku hartzeko mailak.

4. Erabiltzaileen profila:

Hirugarren adinarentzako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2.b) artikulua ezarritakoa kontuan hartu behar da; izan ere, bertan jasotzen da etxebizitza komunitarioak elkarbizitza unitateak direla famili girokoaren antzeko bizimoduarekin, gehienez 14 plazako edukiera izango dutela eta euren kabuz nolabait moldatzeko adineko pertsona zuzenduko zaizkiela. Gauzak horrela, etxebizitza komunitarioaren erabiltzaileen profila ezarpen horretan jasotakoari egokituko zaio.

Halaber, erabiltzaileek izango duten profila ere agertu behar izango da.

5. Baliabide materialak eta giza baliabideak:

Hirugarren adinarentzako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren III. eranskinean ezarritako beharkizunak betetzeko, deskripzio bat egin beharra dago zentroko adineko pertsonak artatzeko beharrezko bitarteko materialei eta ekipamenduari buruz.

Gauzak horrela, ezinbestean zehaztu behar izango dira teknikari eskudun batek izenpetutako burutzapen proiektu teknikoan jasotako memorian deskribatzen ez diren ekipamendua eta altzariak, hala nola:

- Bainugela eta komunetako altzariak eta laguntza teknikoak (kanila motak, laguntza barrak...).
- Gune erkideetako altzariak (mahaiak, aulkiak, telebistak, musika erreproduzitzaila eta jardueretarako erabil daitezkeen gainerako materialak, telefonoa...).
- Geletako altzariak (ohe mota, ea artikulatuak diren ala ez, armairuak eta gau mahaiak...).
- Sukaldeko ekipamendua.

Giza baliabideei dagokienez, honako arautegi hauek bete behar dira: lehenik, hirugarren adinarentzako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 4.6. artikuluan eta III. eranskinaren 8. puntuan ezarritakoa; bigarrenik, Gizarte Politikarako, Familietarako eta Mendekotasun eta Ezgaitasunaren Artapenerako Estatu Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko ebazpena, haren bitartez Autonomiarako eta Mendekotasunaren Artapenerako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia argitaratu baita, betiere Autonomiarako eta Mendekotasunaren Artapenerako Sistemaren zentroen eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko irizpide erkideei buruzkoa (arautegi horretan lanpostu bakoitzerako beharrezkoa diren titulazioak ere ezartzen dira); eta, azkenik, aplikagarria den foru arautegia, baldin eta zerbitzuari lotutako prestazioa jasotzen duen plaza bada.

Zehatz-mehatz deskribatuko da zentroa artatuko duen langile zerrenda, haren okupazioa % 100ekoa denean; gauzak horrela, langileen titulazioa, esperientzia profesionala, funtzioak, lanordu kopurua, atsedenaldiak eta lan txandak zehaztuko dira.

Gerta daiteke zentroak bestelako zerbitzu profesionalak edo kanpo enpresak kontraturik izatea edo kontratatzea aurreikustea; halakoetan, honela jaso behar izango da atal honetan (garbiketa zerbitzuak, janariak, arropa garbiketa, lorezaintza, mantenimendua, aholkularitza, osasun artapena, garraioa, eta abar).

Era berean, borondatezko pertsonalari dagokiona ere jaso behar izango da.

6. Edukiera:

Zentroko gehienezko erabiltzaile kopurua, bai egoiliarrena bai eguneko artapena behar dutenena ere.